

Maite Ascunce Vidondo
Mikel Diez de Ulzurrun Sagala
Ainara Elarre Belzunegui
Prebentzioko teknikariak. NOPLOI
2015ko apirila. 2015eko irailean eguneratua

Errepideko garraioaren sektorea

On-line informazioa, arrisku psikosozial, ergonomiko eta bide segurtasuneko prebentzioaz

Sarrera

Errepideko garraioaren sektorea joan-etorrien kudeaketan aritzen da, izanik horiek ibilbide labur nahiz luzekoak eta pertsona nahiz salgaiena, barne dituela logistika, zamalan eta administrazio lanak, baita lan osagarriak ere. Bere baitan hartzen ditu kamioi eta furgoneten gidariak eta txoferrak, baita taxi, autobus eta gainerakoak ere. Nafarroan 800 enpresa biltzen ditu, 5.000 lagun baino gehiagori lana ematen diotenak.

Sektore honetako langileak arrisku gehien bizi dutenatarikoak dira. Bide segurtasunarekin loturiko arriskuez landa, ageri da arrisku ergonomiko eta psikosozialekiko esposizioa.

Sektoreko azterlan prospektiboek ezaugarri hauek utzi dituzte agerian²:

- ✓ **Indarkeriaren eta jazarpenaren gorakada:** antolaketako aldatetetan nahi gabeko bitartekari gisa aritzera behartu nahi izatea, bezeroaren eskakizunen eta emandako zerbitzuen arteko gatazkak etab.
- ✓ **Nekearen eta estresaren gorakada:** sektore oso lehiakorra, lan karga handiagoa, garraioa denbora laburragoan egin beharra, trafikoaren gorakada, txanda irregularrak, gauekoak eta luzeak etab.
- ✓ **Hezur-giharretako gaitzen agerpena:** jarraera estatikoak, kargak eskuz hartzea eta lan baldintza ergonomikoak eta bizimodu osasuntsuak hartzeko aukera urriak.
- ✓ **Prestakuntza beharra:** aldaketa teknologikoen erritmoekin bat, aplikatzeko zirkulazio kodeekin bat eta behar diren hizkuntza eza-gupenekin bat.
- ✓ **Lan baldintzak pertsonari egokitzeko beharrak:** langile populazioa zahartzea; aniztasuna, generoaren eta nazionalitatearen aldetik.

Sektore honetan langileek osasun arazo handiak izaten dituzte, zuzenean lan baldintzei lotuak, batzuk, eta lanbideak berak eragindako bizimoduak lotuak, bertze batzuk. Populazio orokorrean baino hilkortasun tasa handiagoak ikusten dira eta, gisa berean, ospitaleratze tasa handiagoak jasotzen dira bihotz-hodietako eta hertzeetako eritasun kronikoengatik. Orobat, nabaria da hezur-giltzaduretako patologiaren prebalentzia handia, bereziki bizkarrekoa eta besoetako, baita estresari loturiko sintomatologia ere³.

Azkenik, merezi du arreta berezia egitea neke kronikoaren eta loaren nahasteen eragin handia baieztatzen duten emaitzei, trafikoko lan istripuekin lotura zuzena dutelako⁴.



NOPLOIn lagundu nahi dugu lan baldintzen hobekuntza lortzeko behar den informazio praktikoa zabaltzen, bereziki gidariaren eta garraiolariaren lanpostuez, errepideko bidaiari eta salgaien garraio lanei dagokienez. Horrexegatik sortu da web atari hau, **Errepideko garraioaren sektoreari** berriaz lotua; honen bidez eskuratzen da interesa duen informazioa lanpostu honek dituen arrisku psikosozial, ergonomiko eta bide segurtasuneko ebaluazioari eta prebentzioari buruz.

Laneko arriskuen kudeaketa

Gidari lanpostuaren laneko arriskuen kudeaketak zailtasunak ekartzen ahalko ditu, bakarrik lan egiten dute-lako, beren lantokitik urrun eta kontrolatzen zailak diren lan baldintzei buru eman behar izaten diete. Alabaina, bertze sektore batzuetan ez bezala, laneko arriskuei aitzintzeko araudiaz gain, aplikatzeko araudi berriazko ugari dago, hala nola bide zirkulazioari buruzkoa.

Arriskuen ebaluazioa

Jadanik identifikaturiko arriskuak kentzeko printzipio orokorra aplikatu ondoan egin behar da arriskuen ebaluazioa. Lortzen ez bada, ebaluatu ondoan murriztu eta kontrolatu beharko dira.

Ebaluatzeko prozedurak bete beharko ditu Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduak ezarritako irizpideak. Alde horretatik, konfidantza eman beharko du emaitzei buruz, eta orobat neurketak, azterlanak edo saiakuntzak egin behar direnetan. Araudi hau ez bada, edo aski ez bada, erabiltzen ahalko dira UNE arauak emandako metodo edo irizpideak, Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalaren gidak, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren protokoloak eta gidak, baita autonomia erkidegoenak eta nazioarteko arauak ere. Halakorik izan ezean, entzute handiko entitateen gidak erabiltzen ahalko dira.

Metodologia konbinatuaren erabilera gomendatzen da, kuantitatiboa eta kualitatiboa. Gutxieneko arautzailetik harata, lanak egiten dituztenen engeaiamendua eta partaidetza bulkatuko da. Gisa hartara, informazio egokia eta exhaustiboa lortuko da langileek egiazki egiten duten jardueraren gainean, aurreneurri eraginkorak proposatu eta abiarazteko onuragarria izanen baita.



Arrisku psikosozialak

Erabili ohi diren galdetegiaren itemek ez dute sektore honetan hautemandako arrisku faktoreetariko franko jasotzen. Horregatik, beharrezkoa da ebaluazioa teknika kualitatiboekin osatzea. Hona faktore horietariko batzuk:

- ✓ **Bakarkako lana**
- ✓ **Txandakako lana**
- ✓ **Lan emozionala:** bezeroekiko harremanagatik, bertze pertsona batzuekiko lehiagatik eta antolaketako aldaketengatik
- ✓ **Indarkeria, erasoak eta jazarpena**
- ✓ **Rol gatazka:** eskakizun kontraesankorrak
- ✓ **Denboraren herstura:** entregak "garaiz-garaiz"
- ✓ **Teknologia berriak**



Bide segurtasuneko arriskuak

Ebaluazioa banakakoa izan beharko da, ibilgailu flota bakoitzari buruzkoa, ibilgailu bakoitzaren pertsonarekiko egokitzapenari buruzkoa etab. Gainera, ibilbideen ebaluazioa eta haien alde aurreko plangintza jaso behar ditu.

Lan eremuan arriskua sorraraz dezaketen faktore guzti-guztiak aztertu behar dira, hala nola:

- ✓ **Giza faktorea**
- ✓ **Ibilgailu faktorea**
- ✓ **Errepide faktorea**
- ✓ **Ingurune faktorea**
- ✓ **Antolaketa faktorea**

Garatuko da jardueraren izaeraren arabera eta enpresan izan daitezkeen arrisku berezien arabera.



Arrisku ergonomikoak

Gaur egun, ISO TR 12295:2014 araua dago ebaluatzeko:

- ✓ **Kargen eskuzko jasotzea eta garraioa**
- ✓ **Kargen eskuzko bulkada eta trakzioa**
- ✓ **Goiko gorputz-adarraren mugimendu errepi-kakorrak**
- ✓ **Jarrerak eta mugimenduak**

Laneko baldintza ergonomikoak aztertu behar dira honako hauek jasotzen dituen antolaketaren testuinguruan: erritmoa, txandakatzeak, esposizioaren iraupena eta bizkortzealdiak.



Prebentziozko esku-hartzea

Bertze sektore batzuetan bezala, errepideko garraioaren sektorean prebentziozko esku-hartzeak ekarri behar du aurreneurriak hartzea alor teknikoan, antolakuntzakoan eta prestakuntzakoan. Gainera, hiru neurri motekin egin litekeen konbinazioak hobetzen du aurreneurri gisa duten eraginkortasuna.

Jardunbide egokitzat hartzen diren esperientziak biltzen dira **Errepideko garraioaren sektorea** web atariaren atal honetan. Bibliografia ugariaren artean hautatu da prebentziozko esku-hartze batekin zuzenean loturik dagoen informazioa, norberaren ohitura osasungarritik harata doana. Halaber, interesdunen eskura jartzen da prebentzio arloan parte hartzen dutenek prestaturiko dokumentazioa, prebentzioaren eraginkortasunaren ikuspegitik eta sektoreko langileen partzaidetzaren ikuspegitik moldatua.

Delako informazioa lau ataletan sailkatzen da bibliografiaren eta kontsultarako bertzelako materialen bilaketa erraztu beharrez.

Garraio sektoreko azterlan eta ikerketak

- ▶ Istripu indizea – Eragileak
- ▶ Lan baldintzak eta osasunerako kalteak. Ikuspegi globala
- ▶ Lan baldintzak eta osasunerako kalteak. Alderdi berariazkoak

Aurreneurriak: jardunbide egokiak, gomendioak, eskuliburuak, gidak...

- ▶ Jardunbide egokien adibidea
- ▶ Prebentziozko gomendioak. Aplikazio-eremu orokorra
- ▶ Prebentziozko gomendioak. Gidatze segurua
- ▶ Prebentziozko gomendioak. Bidaiaren planifikazioa
- ▶ Prebentziozko gomendioak. Gidatze efizientea
- ▶ Prebentziozko gomendioak. Estresa, indarkeria eta lanaren antolaketa

Gizarte segurantzaren kudeaketarako gidak eta estrategia publikoak

- ▶ Gizarte segurantzaren kudeaketarako gidak
- ▶ Estrategia publikoak

Bildutako dokumentu bakoitza honako hauen bidez identifikatua dago: ikono bat, arrisku ergonomiko, arrisku psikosozial eta/edo bide segurtasuneko arriskuei lotua, zein eta horrela; dokumentuaren edo estekaren azala; jatorrizko Webarekiko lotura, eta bertze jakingarri interesgarri bat (erakundea, argitaratze urtea etab.).



SST en cifras: Seguridad y salud en el sector del transporte – Una visión general.
Agencia Europea para la Seguridad y la Salud en el Trabajo 2011.

Ejemplos de riesgos psicosociales en esta publicación:
2.2.4. Violencia y acoso en transporte público.

¹ eta ² "SST en cifras: Seguridad y salud en el sector del transporte - una visión general". 2011. Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentzia. Arriskuen Behatoki Europarra. https://osha.europa.eu/en/publications/reports/transport-sector_TERO10001ENC

CARE datu-baseak istripuez biltzen dituen estatistikek adierazten dute 10.000 lagun inguru hiltzen direla errepidean, urtero, Europan. Zifraren barrenean 1.300 bat lagun daude, banaz bertze, autobus, ibilgailu astun eta kamioien gidari (erran nahi baita, 3,5 tona baino gutxiagoko ibilgailuak)

³ "Análisis de la literatura científica en materia de trabajo y salud: sector transporte terrestre de mercancías". 2011. Seguí Crespo, M^a. M., et al.

"Worksite-induced morbidities among truck drivers in the United States." 2010. AAOHN J 58 (7): 285-296 . Apostolopoulos, Y., S. Sonmez, et al.

Errepideko garraioaren sektorea



Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

Harremanetarako

Lan Osasuna
 C/ Industria 2, E. Kalea
 31012 Pamplona
 Telefonoa: 848 42 37 00
 Faxa: 848 42 37 30
 insl@navarra.es

Nabarmontzeak

2014-2016ko Europar Konturak

www.prevenzion10.es
 haz de la prevención
 tu gestión más rentable

Lan osasuneko diru laguntzak
 2014-2016ko Europar Konturak

Lanoklan osasuna
 sutsutako ataria

Generoa eta Lan Osasuna

Desgaitasuna eta Lan Osasuna

Langile Etorkinak

Langile Autonomoak

Gazteak

Langile Autonomoak

Generoa eta Lan Osasuna

Desgaitasuna eta Lan Osasuna

Langile Etorkinak

Langile Autonomoak

Jakingarriak gaita

- Lanean Segurtasuna
- Industria arloko Higieria
- Ergonomia
- Laneko Psikozitologia
- Laneko Medikuntza
- LAPko araudia
- Bide segurtasuna lan ingurunean
- Sektore bereziak
- Nekazaritza sektorea
- Erretirozko langileak
- Errepublikar garraioaren sektorea
- Laneko ezintasuna
- Ikerketa eta azterlanak
- Lesio profesionaletan
- Lan (strip)en (L) eta lanbide-eritasunen (LE) estatusak
- Aur egiteko erakargarriak



Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra

Navarra | Trámites | Temas | Gobierno | Ayudas | Enlaces | Castellano | (Oficina de búsqueda)

ORGANIGRAMA | **SERVICIOS** | **PUBLICACIONES** | **ACCIONES** | **NOVEDADES**

Publicaciones | Publicaciones profesionales | Publicaciones periódicas | Plan director y Ve | Publicaciones | Salud y Movilidad | Sector transporte por carretera

Sector Transporte por carretera

Desde el ISPLA queremos contribuir a la divulgación de la información práctica, necesaria para mejorar las condiciones de trabajo, la salud y el bienestar de los trabajadores y profesionales que se relacionan con las tareas de transporte de viajeros y de mercancías por carretera. Por ello, se ha creado este portal Web específico del Sector transporte por carretera, a través del cual se accede a información de interés relativa a la evaluación y prevención de los riesgos psicosociales, ergonomicos y de seguridad vial presentes en este puesto de trabajo.

Introducción

Evaluación de riesgos

Intervención preventiva

Normativa de transporte

www.insl.navarra.es